

Unibertsitatean ikasi, lana aurkitzeko ez baina zorra egiteko

Apirilaren 25ean *1Trillion Day* eguna ospatuz salatu zuten gaurko eta batez ere atzoko ikasle askok Amerikako Estatu Batuetako irakaskuntza sistemak munduan harro erakusten duen bikaintasunaren ifrentzua: unibertsitate ikasketak burutu ahal izateko milioika herritarrek pilatu dituzte zor itzelak. Lanik ez baina zorra ekarri diela unibertsitateak.

2007KO GAU BATEAN JAN YODAR (Normal, Illinois, AEB) ohartu zen bere seme Jason ez zela etxeratu. Hau Kimika organikoan graduatua zen Illinoisko unibertsitate publikoan, baina ikasketetan 100.000 dolarreko zorra eginda gero ez zuen lanik aurkitzen. Amak goizean unibertsitateera jo zuen, irakasle batek laguntza eskaini zion. Biek goizeko 08:30ean aurkitu zuten campuseko laborategian. Autopsiak azaldu zuen Jasonek nitrogenoa arnastuz bere buruaz beste egin zuela.

Cryn Johannsenek istorio hau *Huffington Posten* plazaratu berri du, gero *Altnet* gune ezkertiarrek ere agertzeko: *The student loan debt suicides* (libreki euskaratuta, Kredituen zorreatatik suizidatzen diren ikasleak). “Suizidioa da ikasketengatik zorren krisiaren alde ezkutua, gutxiegi aipatzen dena, ikasleen kredituen gaia hedabideetan asko jorrazten den arren. Nik ezin diot ezikusia egin, ikasketako maileguak ordaindu ezinik dabilzan jendeen abokatua naiz eta. Suizidioa aipatzen didate maiz. Gero eta jende gehiago dago kondenatua finantza egoera oso larrira, ordaindu gabe dauden ikasketa zorrek bilioi bat dolarretara iritsi baitira”.

Hamabi zeroko bilioia, AEBetan *trillion* deitzen dutena (hango *billion* mila milioi dira, ez nahastu). AEBe-

tako unibertsitateetako karreretan urteotan estudianteez pilatutako maileguen amortizazio eta interesek sekulako marka gaindituko duela salatzen apirilaren 25ean ospatu zuten han *1TDay*, Bilioiaren eguna esango genukeena.

Mugimenduak webgunean ematen ditu kopuru argigarriak. 2008an lau urteko karrerak bukatu zituzten ikasleen %67k zorpetuta egin zuten, 1,4 milioi graduatu berrik. Urte gutxitan igoera izugarria: lau urte lehenago 2004an %27 ziren. Zorren zenbatekoa batez beste: 27.650 dolar.

Datu gehiago. 2005ean titulua hartutako %41 hiru urte beranduago ordainketetan atzeratuta zihozten; kiebra jota zeuden %15. Ikasteko mailegu guztiak kontutan hartuta, kiebran dauden kopurua 2010ean %7 bazen 2011n %9ra igo zen, kasik laurden bateko igoera. Hori unibertsitate guztien batez bestekoa da, brok egiten dutenak publikoetan baino askoz ugariagoak dira unibertsitate pribatuetan: %29,4.

Cryn Johannsenek dioenez, ez da zaila aurkitzea ikasketengatik zorrek harrapatutakoak. Batzuk nabarmendu ditu kronikan “John Koch 47 urterekin oraindik guraso zaharrekin bizi da Oyster Bayn, Long Islanden. Zuzenbidean gra-

Here and now blogetik hartu dugun argazkian, *Associated Press* agentziak zabaldua, ikasketengatik zorpetutako protesta bateko parte hartzailea ageri da. Buruan unibertsitatean graduatuaren kapelua, “ikasleentzako kredituak” dio ezker eskua lotzen dion bola handi katedunak. Eskuinean daukan afixak aurkezten du pertsonaia: “Superreroi langabetua, masterren jabe, zorrak preso hartua”. *The Unemployed Man* komiki famatuak biltzen dituen pertsonaiaetako bat da *Master of Degrees*: “Etengabe tituluak biltzen ari den ikaslea, kasik edozein gai esplikatzeko gauza dena, baina ikasketa zorrek pagatu ezin dituen”. Beste heroiak dira *Unemployed Man* langabetua, *Plan B* lanik aurkituko ez duen adinekoa, *Wonder Mother* ama gazte lanetik bidalia, *Fantasma* emakume etorkina, eta *Fellowman* rastafari solidarioa.

duatu zen arren, urte luzez bizimodu atera du etxe pintaketan. (...) Kochek hasieran, 1997an, 69.000 dolar zor zituen, gehienak zuzenbide ikasketak burutzeko. Touroko unibertsitatean graduatu zenean arazoak izan zituen lana aurkitzeko eta ordainketetan huts egiten hasi zen. Laster pilatu zituen 50.000 dolar atzerapenengatik zigorretan. 2009an bankuak *default* izendatu zuen [guk espainolek hartuta *moroso* esaten dugu]. Lerrook idazterakoan 320.000 dolar zor ditu. (...) Erretretara iritsiko denerako, 23 urte barru, Kochek kalkulatu du 1,9 milioi zor izango dituela”.

Denok gara Quebectarrak

Cryn Johannsenen kalkuluetan zorrik handienak sorrarazten dituen ikasketa zuzenbidea izan behar du, gehienak hondoa jota daude. Hori salatzen duen blogari sarea aipatzen du, beren buruak *scamblogger* deitzen dituztenak. *Scam* iruzurra da, haien ustez zuzenbide ikasketak bezala: “Askoz graduatu gehiago sortzen dituzte gero ekonomiak enplegatu ahal dituenak baino. Gehienak langabezia eta zorpean hondoratuta daude. Brian Tamanaha irakasleak esan duenez *scamblogger*rek bezala nik ere uste dut zuzenbide ikasketak arrisku handiko eskaintzak direla, ikasle askok bukatzen baitu zor



barkatuko lituzkeen 2012ko legea. Proposamena sustatzen duen Robert Applebaumek berak aitortu dio *Christian Science Monitor*reko kazetariari 88.000 dolar zor dituela bere ikasketetatik.

1980tik lau urteko karrera bateko matrikula batez beste %827 garestitu da. 1999tik ikasle baten mailegua %511. Kopuru harrigarriak. HR41701 gunearen kontuetan, 2010ean ikasleek maileguen ordainketan zeramatzatzen atzerapenek gaudituz zuten AEBetako kreditu txartelen atzerapenen kopuruak.

“Labur esanda –dio Robert Applebaumek– ikasleen maileguena da AEBetako azken finantza krisia. Konpontzen ez badugu, ekonomia osoa eramango du hondora, aurretik etxebizitzaren burbuilak eraman duen bezala.

Occupy Student Debt da arazoarekin gazteak mugiarazten saiatzen den beste gunea. Bere eslogana: *Debt Slaves of the World Unite!* “Azkenean agertu da –diote webgunean– zepoan harrapatu gaituztela. Berdin dio zure herria zein handia den edo aberatsa, jende gehiena, udalak, eskualdeak, estatuak, nazioak, denak gaude zorpean. Berdin dio zenbat enplegu daukazun, gogor egiten duzun lana, zure gurasoak ikasiak diren. Jendeen %99aren tartean baldin bazaude, kondenatuta zaude esklabutzara, honek dakartzan lotsa eta morrontzara”.

Ez diote hori lanik gabe bizitarako zorpetu gazteak etsipenera eramateko, irartzartzeko baina: “Munduko zorpetuok, bildu gaitezen!” ■



handiekin eta abokatu lanik gabe, edo batere lanik gabe zorra kudeatzeko adina diru eskuratzeko”.

Christian Science Monitor aldizkariak apirillean gaiari eskaini dion erreportajea –*Students loans: As debts hit \$1 trillion mark, protesters plan Occupy-type events*– New Yorkeko unibertsitateko Andrew Ross irakasle eta gai sozialetako analista mintzatu zen: “Prozesu politikoa-ren lehen urratsa da”.

Rossek kezka berezia agertu zuen bere unibertsitatean zorpetze tasa AEBetako batez bestekoa baino %40 handiagoa delako. “Ohartu naiz neronen soldata neurri batean lotuta dagoela ikasleek hamarkadetan arrena zorra pagatzeari, inoiz pagatzea lortzen badute noski. (...)

Wall Streeten [finantzen munduan] zorrak behin eta berriro kitatzen dira, baina oinezko jende xeheari dagozkionak ez, hauei ez zaie uzten zorrak birnegoziatzen”.

Kazetariak elkarrizketatu zue-nan Ross irakaslea bere ikasleekin antzerkia prestatzen ari zen, *1TDay* egunean bankariei sasi-epaiketa publikoa egin behar zietelako plazan. Ross izango zen mailegu emailletarik. “Zordunak zalapartan hasten direnean, guk ikusi behar ditugu komerziak”, esan zuen barrez.

HR4170 da gai honekin bazter-rrak astintzen ari den beste mugimendu bat. Sinadura bilketan ari dira HR4170 legea onartu dezan Kongresuak: *The Student Loan Forgiveness Act of 2012*, Ikasleen zorrak



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com

